



I. EGOERAREN AZTERKETA

>>>

3

EUSKARAZKO HEDABIDEAK INTERNETEN

Koldo Meso Ayerdi

EHUko irakaslea

Helbide elektronikoa: koldo.meso@ehu.es

INTERNETEN ERABILERA EUSKAL HERRIAN

Lehenik eta behin, azpimarratu behar dugu Interneten erabilera Euskal Herrian ezin dela konparatu Europako gainerako lurraldetakoarekin, askoz gutxiago Estatu Batuetakoarekin. Eustatek dioenez¹, 2005ean gora egin dute Internetera konektatu direnek nahiz Internetera benetan konektatzeko aukera dutenek. Horrela, bada, EAEko 15 urteko edo gehiagoko biztanleen %37,8 sarean nabigatzen ibiltzen dira, edozein tokitatik konektatuta ere. Bestalde, %54,5ek aukera dute bere inguruan konektatzeko; beraz, 16,7 ehuneko-puntuko tartea osatzen dute hainbat arrazoiengatik inoiz konektatzen ez direnek.

Datu horietatik ondorioztatzen da hazi egin dela pertsona kopurua Interneteko erabilgarritasuna ezagutu eta gai horren inguruan behar adina informazio eta interes dutenena. Hala ere, biztanleriaren zati bat informatikaren eta komunikazio berrien mundutik kanpo dago. Badirudi aprobetxamendu-tasa —erabiltzaileen proportzioa Interneten sartzeko aukera dutenen artean— ez dela aldatu aztertutako azken urteetan, eta %68-69 inguruan finkatu da. EAEko erabiltzailearen profila honakoa da: 15-24 urte bitarteko gizonezkoa, ikaslea eta seme-alabadun familian bizi dena.

Aurreko urteetako joerei eutsi zaie. Batez ere familiako etxetik sartzen da Internetera (%74,3), konektatzeko ohiko toki bezala finkatu da eta 2004 urtearen aldean ia 1,8 ehuneko puntu igo da. Joera horiek azaltzen dira ordenagailu kopurua gehitu delako, zaharrak ordeztu direlako eta, beraz, etxetik konektatzeko aukera areagotu egin da. Badirudi Interneten erabilera etxetara lekualdatu dela, eta, ondorioz, Internet erabiltzen hasi zen tokietan murriztu egin da: ikastokietan eta lantokietan, hain zuzen.

Bisitatutako web motei dagokienez, %82,4k ondasun eta zerbitzuen gaineko informazioko orrialdeak kontsultatzeko erabiltzen du internet. Komunikabideak (%57,9), aisialdi zerbitzuak (%39,0), Administrazioaren informazioa (%38,4), banka elektronikoa (%34,4), bibliotekak eta dokumentazioa (%34,3), turismo erreserbak (%29,6), horiek dira EAEko Internet erabiltzaileek kontsultatzen dituztenak, 2005eko inkestan jasotako datuek erakusten duten bezala.

Sexuen arabera, emakumeen %80,4k posta elektronikoa erabiltzen dute; gizonezkoekin duten aldea ehuneko 2,1 puntukoa da, gizonezkoen alde. Gizonezkoen %62,2k komunikabideak bisitatzen dituzte, eta horretan emakumezkoekin duten aldea ehuneko 9,4 puntukoa da, gizonezkoen alde.

Bisitatu diren azken web guneei dagokienez, argi eta garbi, informazioarekin loturiko web guneek nagusi izaten jarraitzen dute, gehien aipaturiko hirurak egunkari digitala baitira. Lehenengo tokian Elcorreodigital.com (%12,2) ageri da; ondoren Diarivasco.com (%4,7) eta Marca.es (%4,4). Prensari loturik ez dagoen lehenbiziko web gunea EAEko unibertsitatearen —EHUren— orri instituzionala da, %3,6. Beste batzuk, urte hauetan, %3-2 artean daude, esate baterako, BBK.es (%3,1), Cajalaboral.es (%2,2), Euskadi.net (%1,8).

Batez ere familiako etxetik sartzen da Internetera (%74,3), konektatzeko ohiko toki bezala finkatu da eta 2004 urtearen aldean ia 1,8 ehuneko puntu igo da.

1. TAULA. 15 URTEKO ETA GEHIAGOKO INTERNET-ERABILITZAILEEK GEHIEN AIPATUTAKO WEB ORRIEK IZANIKO BILAKAERA. EUSKAL AE. 2000-2005

Alpatuak	2000	2001	2002	2003	2004	2005
elcorreodigital.com	14,2	10,9	11,9	11,9	10,4	12,2
diarivasco.com	5,3	4,3	4,7	5,4	4,5	4,7
marca.es	9,1	4,1	5,8	4,8	3,8	4,4
ehu.es	8,0	3,8	2,5	3,9	3,2	3,6
bbk.es	-	-	2,1	3,3	2,4	3,1
cajalaboral.es	-	-	3,0	2,4	1,8	2,2
gipuzkoa.net	-	-	2,1	1,8	2,7	2,1
euskadi.net	10,0	5,6	4,5	4,5	3,4	1,8
lanbide.net	-	-	2,2	2,9	2,2	1,7
elmundo.es	3,5	3,8	2,6	2,4	2,1	1,4
iberia.com	7,7	3,6	3,5	2,5	2,9	1,4
elpais.com	5,9	4,0	3,3	1,7	2,0	1,0
boe.es	4,7	1,8	2,5	1,9	1,6	0,8

Iturria: IGIF. Eustat

Bisitatutako web motei dagokienez, %82,4k ondasun eta zerbitzuen gaineko informazioko orrialdeak kontsultatzeko erabiltzen du internet. Komunikabideak (%57,9), aisialdi zerbitzuak (%39,0), Administrazioaren informazioa (%38,4), banka elektronikoa (%34,4), bibliotekak eta dokumentazioa (%34,3), turismo erreserbak (%29,6), horiek dira EAEko Internet erabiltzaileek kontsultatzen dituztenak, 2005eko inkestan jasotako datuek erakusten duten bezala.

2. TAULA. 15 URTEKO ETA GEHIAGOKO INTERNET-ERABILTZAILEEK GEHIEN AIPATUTAKO ATARI ETA BILATZAILEEK IZANIKO BILAKAERA. EUSKAL AE. 2000-2005

Aipatuak	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Google	1,2	12,0	36,7	65,7	76,0	90,0
Yahoo	31,7	25,5	21,3	14,6	9,9	6,1
Terra	33,8	26,0	16,9	9,9	6,2	1,9
MSN	1,1	4,8	5,1	2,6	1,9	1,0
Altavista	10,5	5,6	3,5	1,6	1,2	0,3
Hotmail	-	-	2,3	0,6	1,9	0,2
Ya	-	-	1,6	0,6	0,2	0,1
Wanadoo	-	-	1,4	1,1	0,8	0,1
Lycos	-	-	2,0	0,6	0,2	-
Navegalia	2,7	4,9	2,5	0,2	0,1	-

Iturria: IGIF. Eustat

Berriz ere, albisteak bilatzea izan da internautarentzat jarduera interresgarriena. Horrela, gehien aipatutako orrietatik, bost egunkariei dagozkien orriak dira.

INTERNETEN DAUDEN EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN SAILKAPENA

2000 urteko azken hiruhilabetetan Euskal Herrian 145 bat komunikabide elektronikoa zeuden. 2008an, 240 bat. Horietatik oso gutxi euskara hutsezkoak dira, eta beste 60ek badute euskaraz zer edo zer. Beste gauza bat da nolako komunikabideak diren eta zenbatek kontsumitzen duten. Hala ere, nahikoa esanguratsua iruditzen zaigu kopuru hori, kontuan harturik gainera, hedabide tradizionaletan ez bezala, erakunde publikoen dirulaguntzarik ez dagoela. Beraz, gaur egun Interneten dauden Euskal Herriko komunikabide guztiak ekimen pribatuari esker —komunikabide publikoak izan ezik, jakina— daude sarean. Horixe da, hain zuzen ere, beste datu interesgarri bat, bi arrazoiengatik: bata, benetako egoera eta indarren banaketa nolakoa den zinez ikus daitekeelako neurri handi batean, eta bestea, Interneti buruzko apustu eskasa eta beldurtia euskal erakundeen aldetik. Salbuespen batzuekin: Eusko Ikaskuntzaren Eusko-news izenekoak, Akitania-Nafarroa-Euskadi fondoaren laguntzarekin 1998ko lehen hilabeteetan hasi zuena.

Sailkapena egiteko, irizpide batzuk erabil daitezke. Alde batetik, orain arte erabiliena, komunikabide-motaren arabera (idatziak eta ikus-entzunezkoak), eta maiztasun edo aldizkotasunaren arabera. Badago beste irizpide bat, oraingoz oso gutxi azaltzen dena, baina aurrerantzean nagusitu behar dena Interneteko komunikazioak arrakasta lortuko badu: medio berria egokitutako eta berez pentsatutako komunikabideak izatea.

Azken irizpide hau kontutan harturik, oso gutxi dira Euskal Herrian bertsio elektronikoa baino ez duten komunikabideak. 1997ko udan sortu zen Gorka Jagobe Palazio Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslearen Basque Media Mirror izeneko hilabetekaria. Hau izan zen lehenengoa baina iadanik desagertu da. Gero, Eusko Ikaskuntzaren Eusko-news ize-

neko astekaria. Bertan, Euskal Herriko zientzia eta kultura informazioa ematen da eta Interneten ezaugarri berrietara egokitzen saiatzen da. Euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez egina da, diasporako euskaldunengana ere iritsi nahian.

Euskal Herriko hedabide elektroniko gehienak, bestalde, batez ere testualak dira. Arrazoi teknikoengatik —soinuak eta irudiak bidaltzea askoz ere mantsoagoa da testu hutsak bidaltzea baino— eta hedabide tradizionallekiko mendetasunagatik. Badago salbuespenik, baina gutxitan ematen dira. Sarean dauden hedabide ikusentzunezkoek, irratia zein telebistak, testualak dira, hau da, betiko produktuen iragarkiak.

Mundu osoan zehar bezalaxe, Interneten dauden komunikabide gehien-gehienak paperezko egunkari zein aldizkarien bertsio elektronikoak dira. Horregatik, nahitaez jarraitu behar dugu betiko sailkapena, aldizkotasunaren eta motaren arabera. Hala ere, badirudi edizio fisikoa- ren ezaugarri hau desagertu dela ziberespazioan. Egun, egunkari elektronikoak ez dira bakarrik egunero kaleratzen, baizik eta orduro.

Hori da gaur egun Euskal Herriko prentsa elektronikoaren kasua. Hasteko, egunkari guztiak daude Interneten. *El Diario Vasco* izan zen aitzindaria arlo honetan, 1995eko abuztuan jarri baitzuen sarean asteko edizio bat. Urte bat geroago, 1996an, astekari hau egunkari bihurtu zen. *El Correo*-k 1996ko azaroan sareatu zuen bere webgunea. Beranduago *Egin* eta *Deia* kontsultatzen hasi ziren Interneten. Egun, Euskal Herriko egunkari guztiek euren orrialdeak Interneten eskaintzen dituzte.


Euskal Herriko egunkari digital horien artean elcorreodigital.com da bisita gehien jasotzen duena; bigarren postuan, eta alde handiarekin, diari vasco.com dago eta hirugarrenean, marca.es kirol egunkari elektroniko- koa. Aipatzekoa da nola segidan agertzen diren beste komunikabide elektronikoan nazional mailakoak diren: elpais.com, elmundodeportivo.es,...

Kopuru hauek paperezko edizioen salmentetatik oraindik oso urruti daude, batez ere probintzia mailako hedapena duten egunkarien kasuetan. Ikusgarria da nola ez datozen bat datuak paperezko edizioetan eta digitaletan.

Mundu osoan zehar bezalaxe, Interneten dauden komunikabide gehien-gehienak paperezko egunkari zein aldizkarien bertsio elektronikoak dira.

Egun, egunkari elektronikoak ez dira bakarrik egunero kaleratzen, baizik eta orduro.

1. IRUDIA. IRAKURLE KOPURUA INTERNETEN.



Iturria: EGM (2008ko Apiril-Maiatza)

Ziberegunkariak laster ulertu zuten arrakasta lortzeko zeintzuk izan behar ziren behar zituzten ezaugarriak: kantitatea; papera euskarri duten komunikabideen indarra aprobetxatzea; eta interaktibitatea, hau da, jendearen parte-hartzea lortzea. Jendeak parte-hartzea ezinbestekoa da, bestela ziberegunkariak jai dute.

Euskara hutsezko egunkari bakarra, Euskaldunon Egunkaria-k aha-
leginak egin ditu, eta ia egunkari osoa Interneten dago. Hasiera sorpresa
bat izan zen, irakurle batek (Josu Azanzak) bere kabuz lehen orrialdeko
titularrak eta sarrerak jarri baitzituen Interneten. Orrialde ez ofiziala zen.
Gero Estatu Batuetako zerbitzari batean, Geocities-en, toponimo-zerren-
da bat eta igandero argitaratzen ziren Gerra Zibilari buruzko erreportaiak
jarri zituzten.

Edizio digitalak finkatzen diren heinean galdera batzuk agertzen
dira etorkizunari begira. Badirudi egunkari digitalek informazioa ez ezik
beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen hasi direla. Eztabaida guneak, *chat*,
inkesta eskuragarriak, berri taldeak (*newsgroup*) edo salerosketa elektro-
nikoa bezalako aukerak agertu ziren hedabideen webguneetan lehenen-
go momentu batean.

Egun, hainbeste entzuten den multimedia kontzeptua herabeki iritsi
da egunkarien web orrialde batzuetara. Egunean eguneko albisteak lan-
tzen dituzte bideoak sartuz. Eta ez hori bakarrik. Sortzen diren edukiak
weberako, telefonoetarako, irratietarako eta telebistarako erabili ahal
dira. Helburua: jende guztiari, norberak nahi duen eran, hizkuntza eta
estiloan munduko eta etxeko berri ematea da. Badirudi egunkari digita-
lek baztertu egin dutela inprimatutako kazetek eskaintzen duten eredua,
eta horren ordez lengoia propio baten bila dabilzala. Oraindik oso las-
ter da jakiteko norantz joko duten, baina argi dago ikus-entzunezkoen
eragina nabarmena dela, nahiz eta soinua eta irudi mugikorrek oraindik
gutxi erabiltzen dituzten.

Honekin batera, ziberegunkariak laster ulertu zuten arrakasta lortze-
ko zeintzuk izan behar ziren behar zituzten ezaugarriak: kantitatea;
papera euskarri duten komunikabideen indarra aprobetxatzea; eta inte-
raktibitatea, hau da, jendearen parte-hartzea lortzea. Jendeak parte-har-
tzea ezinbestekoa da, bestela ziberegunkariak jai dute. Garrantzi berezia
eskaintzen diete gertaeren argazkiei eta bideoei; hobetu behar diren gau-
zei buruzko salaketek egunkarien webguneetan beren lekua betetzen
dute; posta elektronikoaren bitartez erredakziora helaraz daitezke iri-
tziak nahiz iradokizunak, baliabide honek daukan berehalakotasunaz
baliatuz; albiste gustukoenak bozkatzeko aukera ematen zaio jendeari;
Interaktibitatea lantzen duten tresna berriak gero eta garrantzitsuagoak
dira. Egunkari digitalek ulertu dute kazetaritzan aritzeko modu berri
honen erronka nagusia irakurlearekin sortzen den komunikazio elkarre-
ragilean datzala, hau guztia helburu batekin: interes desberdinen arabe-
rako komunitate birtualak sustatzeko, herrialdeen muga geografikoak
eta politikoak gaindituko dituztenak. Hauek guztiek *on line* prozesu gara-
tzen duten heinean, bertan sortzen den *feedback* aberasgarriak gero eta
komunikazio maila handiagoa lortzen du.

Eta hori ez da dena. Herritarrek kazetari lanetan jardun ahal dute,
EITBk jarritako zerbitzu bati esker: *Zu kazetari?* Erabiltzaileek sortutako

albisteak ETBn eta internet³ bidez ikusi ahal dira eta taldeko irratietan jorratutako gaietako bat ere izan daiteke. Bertan bideoz, argazkiz edota testuz osatutako albisteak utz dezakete irakurleek. Oso antzekoa da GOITBn martxan jarritako tartea. *Zu kazetari* izeneko tarte berrian herri-tarrak dira kazetari, kameralari eta gidoigile lanetan aritzen direnak.

Euskararen interesa ziberespazioaren munduan nabarmena da. Baita kazetaritzan ere. Beste kasu paradigmatico bat Argia astekariarena da. Gainera, haiek sortu zuten euskarri fisikoan, CD-ROMean, lehen produktu periodistikoak Euskal Herrian, aldizkarian 1963tik 1997 bitartera argitaraturiko elkarriketa guztiak biltzen dituenak. Hori ere, bilaketa-motore batekin batera, bere webgunearen ardatza da. Argia-koek egin zuten besteek egin ez zutena, balore gehigarria ematea produktu elektronikoari. Bestela, jai dute enpresek negozioa egin nahi badute Interneten.

Hala ere, azpimarratzekoa da egunkari asko aurrera eramaten ari diren ekimena, eta kalitate maila handiarekin gainera. Zalantzarik gabe, webgune hauen guztien produktu izarra hiri edo herrietako informazioa da, tokian tokiko berriak, alegia. Albiste gune hauek ikaragarritzko arrakasta izaten dute ziberegunkarietan, adierazten duenez *elcorreodigital.com* webgunetik bere arduradunak.

Hori bai, lehen esan dugun bezala, poliki-poliki, interneten aurki ditzakegu egunkariak inprimatutakoen eredutik aldentzen ari dira, baina, hala eta guztiz ere, beren menpe jarraitzen dute.

TOKIAN TOKIKO INFORMAZIOA

Aldizkariak, bestalde, askoz gehiago dira egunkariak baino. Tokian toki-koak gero eta gehiago dira interneten ere. Hauek kontutan hartu zuten ez litzatekeela bat ere txarra euskarazko toki hedabideen ibilbidean sareko lanari lehentasuna ematea. Alde batetik, hedabide denentzat zen berria eta ez zegoen abiapuntuan atzerapen handirik. Bestetik, teknologia oso eskuragarria zen, euskarri guztietan merkeena. Eta azkenik, maiztasunaren kontua gainditu egiten zen, informazioa une oro eskainiz. Badirudi laster, erredakzio txikiak nagusituko direla, eta informazioa kudeatu eta gai edo informazio bereziak landuko dituzten gune zentralak izango direla.

Ziberespazioan, berriro ere, mundu fisikoan gertaturiko fenomenoak errepikatzen dira. Hurbiltasunak biderkatu egiten du albiste baten garrantzia. Ikus egiten da herrian istripuz hildako batek jakin-min handiagoa sortzen duela munduko beste puntan hildako mila lagunek baino. Informazio Gizartean toki hedabideak garatzen diren neurrian, informazioaren hurbileko mailak ez dira ezabatzen sare globalean. Herritarrok sarean ere hurbilekoa aurkitzen dugu. Eta zibergunean euskarari lehentasunezko tratua ematen zaio.

Lehenengoa Ttipi-Ttapa nafarra izan zen, gero Santimariñe bizkaitarra, eta ondoren Otamotz, Aretxagazeta eta Bidasoaldeko Mobidak. Zerrenda

Interaktibitatea lantzen duten tresna berriak gero eta garrantzitsuagoak dira. Egunkari digitalek ulertu dute kazetaritzan aritzeko modu berri honen erronka nagusia irakurlearekin sortzen den komunikazio elkarreragilean datzala, hau guztia helburu batekin: interes desberdinen arabera komunitate birtualak sustatzeko, herrialdeen muga geografikoak eta politikoak gaindituko dituztenak.

Informazio Gizartean toki hedabideak garatzen diren neurrian, informazioaren hurbileko mailak ez dira ezabatzen sare globalean.

Herritarrok sarean ere hurbilekoa aurkitzen dugu. Eta zibergunean euskarari lehentasunezko tratua ematen zaio.

Kultur aldizkariarentzat ere Internet oso landa aproposa da. Zientzi aldizkarien kasuan, are gehiago. Badute oso publiko zabala, baina gutxiengo batek osatua. Zabalkunde fisikoa garestia da, are gehiago ale-kopuru murriz baterako.

gehituz joan da azken urteotan: ordenadore pertsonalak eta autoedizio-programek errazago eta merkeago egin baitzuten paperezko edizioa aldizkari txiki batentzat, teknologia informatiko berdina are errazago eta merkeago egiten du edizio digitala.

Toki hedabideen aldetik, *Goiena.net* izan da honetako esperimenterik probetxugarriena. Hedabide mordoxka bildu du egitura indartsuan, teknologian jauzi handia eginez eta euskarri berrietan jarduteko egitasmo indartsua landuz. Gaurkotasunezko gaiak lantzen ditu, herritarren parte-hartzeak berebiziko garrantzia izanez. Gainera, euskara hutsean idatzitako webgune hau, medio berrietan hizkuntza bultzatzeko eta indartzeko erronkarekin jaio zen.

Interneten egoteak ba dauzka abantailak, nabarmenak gainera: irakurleak gehiago dira, paperezkoak bezalaxe dohainik izaten jarraitzen dute, baina ekoizlearentzat merkeagoak, ez baitira inprimatu behar, ez eta banatu behar. Are gehiago: aurrekoen artxiboa eta bilaketa-sistema eskain daiteke, paperezkoan egin ezin daitekeena.

Kultur aldizkariarentzat ere Internet oso landa aproposa da. Zientzi aldizkarien kasuan, are gehiago. Badute oso publiko zabala, baina gutxiengo batek osatua. Zabalkunde fisikoa garestia da, are gehiago ale-kopuru murriz baterako. Publiko horrek, bestalde, berri zientifikoak oso arin jakin behar ditu. Ale-kopuruaren erreproduzioaren eta banaketaren kostua desagertu egiten da Interneten. Hala ere, Euskal Herrian zientzi eta kultur aldizkariak urriak dira. Bazeuden euskara ikasteari buruzkoak, *Aizu!* eta *Euskaltzale*. Hori bai, paperezkoen berdina dira. Berdin gertatu zen Euskal Herriko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko *Zer* aldizkariarekin. Aldi berean agertu ziren paperezko bertsioa eta digitala. Fakultate horretan ere agertu zen 2000.ko ekainean *Coranto.net*, kazetaritza digitalari buruzko lehenengo aldizkari elektronikoa, *Kazetaritza II* Sailak kaleratua.

Argi dago aldizkari elektronikoek beren merkatua izugarri zabaltzen dutela internetera igaroz, nahiz eta txikiak izan.

EUSKAL KOMUNIKABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK, ETORKIZUNARI BEGIRA

Argitalpen elektroniko guztiek, teknologia berrien aurrean nahiko bel-durtiak direnak, laster aukera batzuei aurre egin beharko diete: lehena, erabaki ea interneteko informazioa era tradizionalean nahi duten eskaini edukien laburpenen bitartez, edo harantzago joatea, edukiak sarean *in extenso* emanaz, eta horregatik lortzea bere zabalkundearen zati garrantzitsua igorpen elektronikoa izatea. Hori lortzeko, dudarik gabe, edizio elektronikoak eskaintzen dituen aukerak agortu behar dira, esperimentatu egin behar da. Galdera izango litzateke: betetzen al dute Euskal Herriko hedabideek eskakizun hori?

Hasteko, multimedialitatea eskasa da. Ikusentzunezko hedabideek ez dute ez soinurik ez irudi mugikorrik zabaltzen. Edo oso gutxitan. Irudi mugikorrek, egia da, arazo teknikoak ematen dituzte. Ez horrenbeste, ordea soinuek. Internetek sekulako azkartasuna eta kalitatea eman dio irratitari.

Salbuespenak badaude, *Irrati.com* eta *Proyeccion.tv*. Azken hau interneten bidez euskaraz emititzen zuen lehenengo telebista zen. Bost kanalez osaturik zegoen (berriak, konferentziak, turismoa, bideo sormena eta enpresei zuzenduriko guneekin kontatuko duelarik hain zuzen ere), momentuz. Telebista berria dohainekoa zen, independentea eta egunero edo astero berritzen joango zena izango zen. Proiektu berriaren zuzendaria zen Gerardo Fernández Llanak adierazi zuenez, helburua ez zen beste komunikabideei konpetentzia egitea, baizik eta laguntzaile bat gehiago izatea nahi zuen. Ipar Euskal Herrian bazegoen beste adibide bat, *TVPI.com*, Baionako tokiko telebista.

Irratiari dagokionez, beste alternatiba bat proposatzen dio *Irrati.com*-ek, Euskal Herrian interneten bidez emititzen duen lehenengo irratia. Sarean emititzen duten atzerriko irratia arakutzen hasi ziren Jabi Zabala eta Patxi Gaztelumendi, eta hortik aurrera, musika, irratia eta sarea proiektu berean elkartzeari ekin zioten. Haien ustez, irratia kontzeptu erabat ezberdina da, Interneten mugarik ez baitu. Kontzeptu mugagabe horren baitan sartzen dira bai edukiak eta bai hartzeko gaitasuna, berdin jar baitezakete haiek egindako programa bat, edo beste irratia batek egindakoa. Ez dute loturarik inongo irratiarekin.

ekoizpen eta errealizazio-alorrean internetek eskaintzen dituen aukerak asko dira, emanaldiak urrutirago eta jende gehiagorengana heltzeko bidea ere errazten die sareak telebista eta irratia txikiei.

Internetek beste lan egiteko modua eman die telebistari eta irratiei. Interneten bidez, telebista-saioak eta irratsaioak (batez ere, azken hauek) eman eta baita jaso ere ahal dira⁴. Mundu osora zabalduko dituzte hauen edukiak. Horrez gain, Internet oso azoka ona izan daiteke euskal irratitelebistek beren 'filosofia', beren identitatea erakusteko. "Internet garatu eta berehala konturatu ziren herri-mugimenduak komunikazio-amarau-nak oso tresna egokia eskaintzen ziela beren aldarrikapenak ezagutarazteko" (Gutierrez, 2003: 56).

Teknologia berriak iritsiak dira telebistaren eta irratia mundura. Nahiz eta irratitelebista generalista gehienak duela hamarkada batzuetako eduki berberak iritsi, aukera berriak ari dira sortzen. Dagoeneko euskal irratitelebista gutxi kontsulta daitezke internet bidez.

Irrati-telebista askotako arduradunek Interneteari emandako erabileran murrizta da, eta batez ere, programei edota irratitelebistetakoa saioei buruzko informazio gehigarria ematen dute. Irratien kasuan, eskaintzen diren saioak, aurretik eman direnak izaten dira gehienetan edo, gutxitan, zuzenekoak. Telebisten kasuan, ordez, bideo batzuk ikusteko

Argitalpen elektronikoko guztiek, teknologia berrien aurrean nahiko beldurtiak direnak, laster aukera batzuei aurre egin beharko diete: lehena, erabaki ea interneteko informazioa era tradizionalen nahi duten eskaini edukien laburpenen bitartez, edo harantzago joatea, edukiak sarean in extenso emanaz.

**Ekoi-zen eta erre-alizazio-
alorrean internetek
eskaintzen dituen aukerak
asko dira, emanaldiak
urrutirago eta jende
gehiagorengana heltzeko
bidea ere errazten die
sareak telebista eta irrati
txikiei.**

aukera eskaintzen dute. Hori bai, ezin da esan interneten dauden irrati-telebistek gaur egun programazio propiorik garatzen dutenik, salbuespen batzuetan.

BLOGAK, KOMUNIKABIDEETAN ERE BAI

Geroz eta parekotasun handiagoa dago herritarren eta hedabide handien artean; gaur egun, edonork sor dezake bere bloga; argitalpen simplea, nahi bezain jantzia eta interaktiboa. Badira blog komertzialak, instituzionalak eta hedabideei lotuak; baina batez ere, milaka eta milaka dira blog pertsonalak, bakoitza bere egileak sortua.

Dagoeneko jende askok ezagutzen ditu blogak. Izan ere, Technorati⁵ dioenez, munduan 112,8 milioi blog daude 2008an. Horien artean, gehienak japonieraz (%37) eta ingelesez (%36). Gaztelaniaz, berriz, guztien %3. Eta euskaraz, bost mila blog inguru zenbatu omen dituzte.

Blogak maiz eguneratzen dira eta bertan idazteko estiloa zuzena izaten da. Gehienek iruzkinak bidaltzeko aukera ematen dute, egilearen eta irakurleen arteko solasaldiak ahalbidetuz. Gai, interes, zaletasun edo jakin-min bereko blogek blogosfera delakoetan parte hartzen dute. Horretan datza, hain zuzen ere, blogen bidezko solasaldi honen joritasun handiena. Argi dago blogosfera horien eremuetan hartu-eman ugari eta aberatsak sortzeko aukera handiagoak daudela, blog bakar bateko iruzkinen bidez baino. Horregatik, fenomeno honen gakoa, blogetan baino gehiago, blogosferetan dago, blogekin sortu den mundu berria, ugaria eta librea.

Seguru aski, azken urte hauetan, blogosferaren ikuspegi ezagunena da, blogak komunikabideetara heldu baitira. Geratzeko asmotan, gainera. Izan ere, komunikabideetan solas egiteko bidea ematen duten gai ugari izaten dira. Eta blogak, argi dago, horretarako tresna egokiak dira.

Albisteak eta informazioa lantzeko eta aurkezteko modu berritzaile batekin sareratu dira blogak eta euskal internauten artean erreferente saihestezina bilakatu dira denbora laburrean. Informazioaz eskaintzeaz gain eztabaida eta hausnarketa bultzatu nahi izan dituzte.

Hori dela eta, gaztelaniaz, bederen, informazioa gai nagusizat duten blog multzoa sortu da. Hala ere, euskaraz, nahiz eta gutxi izan, ba daude.

Eremu eta kasu bakoitzean, blogak eta haien arteko solasaldiek helburu desberdinak eduki ditzakete. Blog eta blogosfera bakoitza berez mundu bat da. Komunikabideekin duten loturari dagokionez, blogak ondoko talde edo kategorietan multzoka daitezke helburuen arabera:

— Komunikabideak berak sortutakoak. Haien helburua arduradunen eta herritarren arteko komunikazioa eta hartu-emanak erraztea da, zerbitzuetako erantzuleak eta erabiltzaileak elkarri hurbilduz. Gainera, blogen bidezko harremanak eroso eta egokiak izan daitezke. Adibidez, *Berria* egunkariak sortuak⁶ edota *Goiena.net*⁷.

— Herrietako aldizkari digitalak blog formatuan. Berriak, bisita gidatuak, argazkiak eta abar eskaintzea da beren helburua. Hauek herrietarako tresna ezin hobeak dira. Izan ere, horien bidez informazio, prentsa oharrak eta zerbitzuak aise helaraz dakizkieke herritarrei. Tamalez, herriek ez dute sarriegi erabiltzen tresna egoki hau. Adibidez, *getaria.info*.

— Herritarrek sortutakoak. Haien helburua euskarazko albisteak zabaltzeko webgune bat sortzea. Berritasun legez, gunearen beraren erabiltzaileak izango dira bere edukiaren egileak, eta edonork eman dezake albiste baten berri, aldezturik han erregistratuta. Horrela, bisitarien egina den albiste gunea sortzea eta sarean euskara sustatzea ditu helburu egitasmoak. Adibidez, *zabaldu.com*⁸.

— Gai profesionali buruzko blogak, profesional euskaldunarentzako albistegi bat. Horra hor *sustatu.com*, ekonomiaren alor desberdinetan (irakaskuntza, industria, zerbitzuak...) lanean diharduten eta prestatzen ari diren gazteentzako zerbitzu bat. Aipa dezakegu *eibar.org*, internet eta teknologia berrien erabilera sustatzeko ahalegina, esparru horietan trebatzeko aukera.

— Blog komunitatea. Hainbat komunikabideetan garrantzi handia eman diote iritzia, eta herritarren parte-hartzea bilatzen dute. Beren helburua herritarrak iritzia ematea. Herritar batek, talde batek, elkarte batek... edonork du zeresanik herriko kontuez. Eta horretarako aukera eman nahi dio. Hala nahi duen edozein herritarrek edo herriko taldek. Baldintza batzuk betez gero, betiere. Adibidez, *uztarria.com* edo *karkarra.com*.

— Ezin ditugu ahaztu bai EHU eta baita Deustuko Unibertsitatean sortu diren blog taldeak, hainbat irakasleren inguruan.

Euskarazko blogak oraindik beren ibilbideari baino ez diote ekin, bai komunikabideetan bai bestelako eremuetan ere. Komunikabideen eta informazio kontsumitzaileen arteko harremanak aldatzeko duten ahalmena oraindik ikusteko dago; hori, sakonean miatu beharreko arloa da.

ONDORIOAK

Euskal Herrian sareratzen diren komunikabide digitalak, beren nortasuna osatuko duen ezaugarrien bila dabilta oraindik. Oraindik, urte batzuk behar dira komunikabide berri hau nolakoa izango den jakiteko; hastapenetan gaude.

Etorkizunik badago kazetaritza digitalean, audientzia berrietan dago. Irakurle berriak zortzi edo hamar urte ditu, eta bideojokoekin jolasten du. Hau da, ordenadoreekin ibiltzen da, informazioa beste era batera jasotzen du, badaki zer den interaktibitatea, informazio-mailak. Azken batean, apustua multimedialitatearen aldekoa, interaktibitatearen aldekoa, arintasun eta aldi berean sakontasunaren —eta pertsonalizazioa—

Munduan 112,8 milioi blog daude 2008an. Horien artean, gehienak japonieraz (%37) eta ingelesez (%36). Gaztelaniaz, berriz, guztien %3. Eta euskaraz, bost mila blog inguru zenbatu omen dituzte.

***Blog komunitatea.
Hainbat
komunikabideetan
garrantzi handia eman
diote iritziari, eta
herritarren parte-hartzea
bilatzen dute. Beren
helburua herritarrak
iritzia.***

ren— aldekoa izan behar da. Agian, produktu berriak, publiko berriarentzat, ez daude enpresa zaharren eskuetan, irudimena duten kazetari eta enpresa berrien eskuetan baino.■

BIBLIOGRAFIA

- Diaz Noci, J.; Larrañaga, J.; Larrondo, A.; Meso, K. (2007). *El impacto de internet en los medios de comunicación vascos*. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Diaz Noci, J.; Meso Ayerdi, K. (1999). *Periodismo en internet. Modelos de la prensa digital*. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Gutierrez Paz, Arantza (2002). *Euskal irratigintzaren historia*. Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea.
- Gutierrez Paz, Arantza (2003). "Irratiak eta Internet bat eginda, hedabide erraldoien aurrean", *Uztaro*, 47 zbk., 55-66.
- Meso Ayerdi, Koldo (2004). "Los diarios electrónicos de provincias: el caso vasco", *Mediatika*, 10 zbk., 135-195.
- Meso Ayerdi, Koldo (2006). *Introducción al ciberperiodismo*. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Meso Ayerdi, K.; Cantalapiedra, M.J. (2004). "Presencia de los medios de comunicación vascos en internet", *Mediatika*, 10 zbk., 9-76.

OHARRAK

1. <http://www.eustat.es/elem/ele0004200/inf0004251_c.pdf>
2. <<http://mediablog.eitb24.com/zukzri/>>
3. <<http://www.eitb24.com>>
4. Horretarako, ordenagailuan *Real Video* eta *Real Audio* bezalako programa bat eta soinu-txartela baino ez dira behar.
5. <<http://technorati.com/>>
6. <<http://www.berria.info/blogak.php>>
7. <<http://goiena.net/blogak>>
8. <<http://www.zabaldu.com/>>